



Mobilizazio egunera deitu du ezker abertzaleak

TOLOSALDEA ▶ Bihar egingo dute 'Autodeterminazioaren alde, baldintza demokratikoak' lelopean

DEIALDIAK ▶ Gaur eta bihar artean eskualdean auto karabanak eta manifestazioak egingo dituzte ▶ 4



Miel Mindegia. N. LIZARTZA

TOLOSA ▶

Desafio berri bat bota du dagoeneko Mindegia aizkolariak

Herenegun zezen-plazan eginiko apustuan irabaziz Oñasagastiri ▶ 3



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Gutxigatik baina txapela Iberora joan da

LEITZA ▶ Indartsu borrokatu zuen Abel Barriolak baina 22-21 galdu zuen Martinez Irujoren aurka Lau t'erdiko finalean, Ogetan ▶ 7

hitza

Harpidedunen txokoa

HITZAko harpidedunen artean

Nobelaren

20 ale zozketatuko ditugu!

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: **943 65 56 95**

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea



Joxe Mari Iturralde idazlearen

“Hyde Park-eko hizlaria”

Eguberri honetan oparitu eta irakurtzeko nobela

Londresera joan ziren 1973ko uda hartan. Euskal Herrian jendea isilik ibiltzen zen sasoiari, Hyde Parkean adineko gizon bat euskaraz hitz egiten aurrkitu zuten gerra galduaz. Jadanik ez dute Wight islan egon zirenean oroitzen, baina joatekotan ibili zirela bai....

Joseba Sarrionandia

KOMUNIKABIDEAK ▶

Duela 5 urte plazaratu zen euskarazko lehen egunkaria eskualdean

Egunkariak, Galtzaundik eta eskualdeko hainbat gizarte eragilek abiarazi zuten TEPEren babesarekin



2001eko abenduaren 1an kaleratu zuten euskarazko lehen egunkaria eskualdean. J. SAIZAR

IRITZIA ▶ JOXEMI SAIZAR (IRAKASLEA ETA HITZA-KO ZUZENDARI OHIA)

Pox xipristinak



Egunero sortu eta handik hilabete batzuetara, Baliarraingo emakume batek esan zion *Eguneroko* kazetari bati egunkaria ateratu zenetik ikuluko lanak atzeratu egin zituela, gosaldutik ondoren periodikua letu eta gero jaisten zela ikulura. Oso gustura hartzen omen zuten. Okinaren zain egoten omen zen. Poxa eman zidan. Horrelako pox xipristinak ttantaka iristen dira kazetaritza munduan. Bai pox xipristinak deitzen diet, pox xipristinak izatera ez baitira iristen esker oneko hitz horiek.

Bost urte pasatu dira eskualdeko euskarazko egunkaria sortu genuela eta askotan, egunerokotasunaren zurrumbilaoan, ez gara konturatzen duen balioaz eta merituz. *Egunero* milaka etxetan gaurkotatasunaren leihoa zabaltzen duela ez dugu ikusten. Inguruko kirolariak, politikariak, kultur ekitaldiak, herri mugimenduak, gazteak, jubilatua (eskualde honetan gazteak baino askoz ere aktiboagoak, egunkariako agenda jarraitu bestela), idazleak, apaizak, ikastetxeak, artisauek... agertzen dira leiho honetan. Asko-

tan komunikabide batean estreinaldia eginez. Eguna joan eta eguna etorri, zortzi orrialde xixtrin eskualdeko informazioarekin edukiz betetzea zenbat lan ematen dituen ez gara konturatzen. Hasieran askok erronka zalatzen jartzen zuten. Hasiera guztiak zailak izaten dira. Euskarazko komunikabide berri bat martxan jartzea eta sendotzea sekulako lana da. Galdetu bestela fase horietan aurkitzen diren Txolarre irratikoei eta K28 telebistakoei.

Galtzaundi aldizkaria eta *Egunero*-egunkariaren sorrera sukaldearen barrutik ezagutu ditut eta ez zen izan kanpotik zirudien bezain erraza. Gaur egun biak sendotuta daude eta argitaratzeko arazorik ez dutela dirudi. *Galtzaundi* aldizkariak hasitako normalizazio lana biderkatu egin zuen *Egunerok* (eta gaur egun *Hitzak* jarraitzen du), hamabostekariatik egunkarirako jauziaren proportzioan gutxi gora behera. 333 *Egunero*, 27 *Galtzaundi* egunkaria (horietako bost formato txikian) eta eskuetan duzun honekin 1.041 *Hitza* ateratu dira bost urte hauetan. 1.401 egunkari eginen dituzte guztira abenduaren 2001eko 18 hartatik. Horregatik lan horretan ari diren kazetariak eta bestelako langileak (plantilla osoa berritu da bost urte hauetan) poza pixka bat eman behar diegu, ea xipristin horiek uholde bihurtzen diren.

ERREDAKZIOA

Atzo bete ziren bost urte *Tolosaldean Egunero* ateratu zela lehen aldiz, eskualdeko euskarazko egunkaria. Hilabete askotako lanaren ondoren, *Egunkariak*, *Galtzaundi* euskarra taldeak eta eskualdeko hainbat gizarte eragilek jarri zuten martxan, TEPEren babesarekin. Kazetari eta langile talde bat osatu zen, trebatu zen eta proba batzuk egin ondoren, 2001eko abenduaren 18an ateratu zen lehen zenbakia kalera.

Bezperan Belodromoan jokatzen zuten Bertsolari Txapelketa Nagusia eta eskualdeko Mendiluze eta Irazuren papera izan zen albiste nagusia. Alegiko Gaztetxearen urteurrena eta Justo Maria Mokoroaren mendeurrena izan ziren beste albiste batzuk. Tolosako Udalak Araba etorbidean utzitako egoitza biluzik zirudien azken orriaren agertu zen lan taldearen argazkia. Ordenagailuak eta askoz ere gehiago ez zegoen bertan.

Harpidetza kanpaina baten ondoren, berehala iritsi zen 7.000 harpidedun izatera. Etxeko buzoieraino eramatea eta doan izatea izan ziren arrakastaren zati garrantzitsuenak. Bailarako egunkaririk irakurriena izatera pasatu, lehen aldiz erdarazko komunikabideak gainditzen zituena. Egunkari ona, interesgarria eta irakurterreza zela zioten irakurleek 100. zenbakian egindako inkestan. Berehala ohitu ziren produkto berrira. Zorion agurren tarteak arrakasta izugarria izan zuen. Erakunde ofizialen diru laguntzak iristea kostatu zen pixka bat, baina iritsi ziren.

HITZAREN JAIOZTA

2003ko otsailaren 20an ateratu zuten *Tolosaldean Egunero*, Del Olmo epaileak *Egunkaria* itxi zuenean. Euskal Herriaren *Egunero* ateratu zuten orduan *Egunkariako* langileek Tolosako egoitzan lan eginez, eta *Galtzaundi* mantxetarekin ateratu zen eskualdeko egunkaria, *Galtzaundiren* egoitzan lan eginez. Martxoaren 23an ateratu zuten lehen **TOLOSALDEKO HITZA** enpresa berri batek. 2004ko maiatzaren 21ean Leitzaldera zabaldu zen **HITZA**. Geroztik etorri dira webgunea, lehiaketak, promozioak eta bestelako berrikuntzak.

Euskararen normalizazioaren alorrean sekulako lana egin du eskualdeko egunkariak, hasieran jarritako helburuak ondo betetz. Komunikabide profesionala, anitza eta interesgarria dela erakutsi du.

INKESTA ▶ Bost urte hauetan zein izan da egunkariaren ekarpena?

JUAN KRUIZ IGERABIDE
IDAZLEA



«Gizarte inguruarekin eta herri desberdinetako kultura jarduerarekin harreman zuzena izateko aukera eman digu».

NEREA PIKABEA
KAZETARIA



«Adin desberdinen eragin izan duen hedabidea da, erreferente bihurtu da, irakurterreza da eta gaiak interesgarriak dira».

ANTTON IZAGIRRE
IRAKASLEA



«Herrien arteko kohesioa, euskarra eta gertutasuna, hiru euskarriak jorratuz euskaldunon etxetan sarzea lortu du».

OINATZ BENGOTXEA
PILOTARIA



«Egunkari umila da baliabide eta laguntza gutxiarekin ateratakoa. Leitzako tabernetan ohikoa da ikustea».

KIKE AMONARRIZ
TELEBISTA AURKEZLEA



«Urrats kualitativoa izan da informazioa naturaltasunez jasotzen baitugu; ahalegin handi baten fruitua izan da».

IDOIA OLANO
EUSKARA TEKNIKARIA



«Gurasoak euskaraz irakurtzen jarri ditu Tolosaldeko eta Leitzaldeko egunkariak. Hori ez da gutxi».

RAMON OLASAGASTI
KAZETARIA



«Ez gara konturatzen zer nolako zortea den egunkari eskualdeko berriekin zortzi orriko euskarazko egunkari bat ateratzea. Lehen entzuten ez ziren iritzi eta gutunek **HITZA** aurkitu dute tokia».

GIZARTEA ▶

Zaldunita taldearentzat izan da aipamen berezia

Ostiralean banatu zituen Galtzaundi Euskara Taldeak, Eskerrak Zuri aipamenak



Aurtengo Eskerrak zuri aipamen berezietako sarituak. HITZA

E. EZEIZA

Urtero lege, joan den ostiralean banatu zituen Galtzaundi Euskara Taldeak Eskerrak zuri aipamen bereziak. Sari-keta hauek, Tolosaldeko herri- eta taldeei ematen dizkiete, urtean zehar egin duten lana publikoki eskertzeko helburuarekin.

Laugarren edizio honetan, kirol arloko aipamen berezia, Luis Javier Lorz Kapuri eman zioten. Tolosar hau urteetan

Hirukideko gorputz heziketa-ko irakasle izan da. Kulturaren arloan egindako lanagatik, Tolosako zine-kluba izan zen ostiraleko beste sarituetako bat. Azkenik, gizatasun saria Jonnan Fernandezentzat izan zen. Hau, Baketik zentruko zuzendaria da. Bukatzeko, urtero, Galtzaundik ematen duen aipamen berezia aurten, Zaldunita inauterizale taldeari eman zioten, Tolosako Udaleko batzar aretoan joan den astean egindako ekitaldian.

KIROLAK ▶

GPSaren gaiarekin hasiko da Kirol Astea

Gaur hasiko da Kirol Astea. Antolatutako jardueren baitan, GPSaren erabileraren inguruko hitzaldi teorikoa izango da gaur. 19:00etatik aurrera, tresna honen erabileraren inguruko aholkuak, agibideak etabar emango dituzte Usabal kiroldegian.

KULTURA ▶

Izaskun Arriola eskolako dantza saioa gaur

Izaskun Arriola dantza eskolako emanaldia izango da gaur, 20:30ean Leidor antzokia. Funky, Jazz, afrikar dantza eta latinoko 150 ikaslelik gora ariko dira gaurko saioan. Dantza ezberdinen bitartez istorio bat taularatuko dute.

iragarki laburrak ▶

BESTEAK

Loradenda. Loradenda eskualdatzea Lasarten. 30 urte baino gehiagoko jarduera, material eta guzti. Interesatuak deitu 943 36 75 75 edo 626 50 56 89ra.

SALGAI

Autoa. Ford Scort 1.800 TD. Matrikula: SS-BC. Interesatuak deitu 943 65 52 88 zenbakira.

Sutarako egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera eramaten da. Telefono zenbakia: 615 75 57 62.

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko lllantak eta sapaia. Egoera onean. 14.000 euro. Telefonoa: 943 65 41 43.

LANA

Abeslaria. Erromeri eta aezkontza taldeak abeslaria behar du. Telefonoa: 658 70 11 96.

EROSTEKO

Artoa aletzeko makina. Artoa aletzeko makina bat erosiko nuke. Telefonoa: 662 24 89 36.

KIROLAK ▶



Igandeko saioan, Joxe Ramon Olaagasti ezkerrean, eta Miel Mindegia eskuinean. N. LIZARTZA

Desafio berri bat egin du jada Mindegia

Olasagastiren aurka igandean irabazi eta gutxira, apustu berri bat egiteko prest agertu zen 57 urteko aizkolaria

ESTI EZEIZA

Herenegungo garaipenaren ondoren desafio berri bat luzatu du Miel Mindegia: «Munduko edozein aizkolariri 60 ontzako 20 enborretara apustua jokatze prest nago», agertu du aizkolaria nafarrak. Joxe Ramon Olasagastiren aurkako saioa amaitu bezain pronto egin zuen hurrengorako gonbita, hala, erronka onartu nahi duenak Tolosako Cantabriko taternara agertu beharko du ostiral honetan, iluntzeko zortzietarako.

57 urteko aizkolaria honen iragarpenak harri eta zur utzi zituen askok eta askok. Betidan izan da apustu-zalea Ezkurrrakoa, baina aurtengo Euskal Herriko Txapelketan ezin lehiatu izanak eragina izan du

desafio hauek botatzeko garaian. Berak parte hartu nahi bazuen ere, legediak ez zion uzten, Hirugarren Mailan hasien ez bazen behintzat.

Zezen-plazan nagusi

50 minutu eta 19 segundo behar izan zituen Miel Mindegia herenegun, 24 kanaerdiko mozteko. Olasagastik baino 3 minutu eta 27 segundo gutxiago. Aspaldian ikusi ez zen apustua izan zen Mindegia eta Olasagastiren artekoa. 3.000 pertsona inguru bildu ziren Tolosako Zezen-plazan bi aizkolaria beteranoan arteko desafioz gozatzeko. Hasieratik, apustuak 100-80ri, Mindegia alde izan ziren.

Desafioaren lehen zatian, gutxiagatik baina donostiarra

joan zen aurretik. Hamaikagarren egurrean gauzak aldatu ziren eta nafarrak aurre hartu zuten. Hala, saioaren erdialdean 30 segundoko aldea lortu zuen Mindegia eta hau erabakiorra izan zen, hortik aurrera Olasagastik erritmoa jaitsi baitzuten. Hori ikusita, Mindegia erritmoa mantentzen bakarrik saiatu zen. Batzabesteokari dagoionean, 57 urtekoak kanaerdiko bakoitza bi minututan moztu zuen bitartean, Igeldoak minutu erdi gehiago behar izan zuen egur bakoitzera-ko.

Miel Mindegia irabazi bazuen ere, saio bikaina egin zuen Joxe Mari Olasagastik, eta 47 urterekin, oraindik ere sasoi betearen dagoela erakutsi zuen eta gustora geratu zen egindako lanarekin.

Tolosako Udala
IRAGARKIA
Gobernu Batzarak, 2006ko azararen 27an egindako bilera, honako dokumentu honi hasierako onespene eman zion:
INJELAN, SL-k 2006ko irailaren idatzitako Gf-2135ean, Tolosako Amaratotz auzoaren eta Txaramaren arteko lotura hobetzeko eta bidegorria erakitzeko proiektua.
Nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ahal izateko, proiektua HOGEI EGUN iragarri honen azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita jendearekin jarrita egongo da. Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzorua eta Hirigintza Buztakoak, 196.2 artikuluan vedatutaren arabera, iragarri hau Gipuzkoako Aldakari Ofizialean, Berria, Diario Vasco eta Hitza egunkarietan argitaratuko da.
Espedientea, inork aztertu nahi bada, Hirigintza Bulegoan egongo da (Plaza Zaharra, 6-B), aipameneko epean, Alegazio edo erreklamazioak Alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaleko Sarrera Erregistroan aurkeztu.
Tolosa, 2006ko abenduaren 11n. ALKATEA.

eramateko prestaketa
TRAINERA ZIABOGA
AGINAGA
40€
Eramateko tel. 943 372 808

POLITIKA ▶

Ezker abertzaleak mobilizazio egunera deitu du biharko

'Autodeterminazioaren alde, baldintza demokratikoak' da iragarritako leloa

ERREDAKZIOA

Ezker abertzaleak mobilizazio eguna antolatu du biharko, *Autodeterminazioaren alde, baldintza demokratikoak* lelopean. Euskal Herriko konponbide prozesuak, «gatazka egon dadin arrazoiak gainditzea behar du izan buruan», dio ezker abertzaleak. Horren harira, «hitza eta erabakia erdiesteko aukera gabezia gaindituz, lurraldearen batasuna eta erabakitzeko ahalmena bilduko dituen esparru berria sortu dezan», adierazi dute mobilizazio egunaren harira. Euskal Herriak «baldintza demokrati-



Hainbat asteasuarek mobilizazio deialdeiarekin bat egin dute. HITZA

koak» behar dituela dio ezker abertzaleak «prozesu hori bururaino eramateko».

Tolosaldean hainbat ekitaldi

antolatu dituzte gaurko eta biharko. Tolosan, esaterako, 19:00etan kotxe karabana abiatuko da gaur Maxi Eroski-

ko aparkalekutik. Bihar, manifestazioa deitu dute Traingulo plazatik, 19:30ean.

Villabona Aiztondon kotxe karabana abiatuko da, 19:30ean, Leibi enpresaren aparkalekutik (Asteasu eta Zizurkil arteko errepidean). Bihar, 19:30ean manifestazioa antolatu dute Villabonako plazatik hasita. 20:30ean kontzentrazioa egingo dute Asteasuko Plazan.

Ibarran, berriz, 19:45ean, plazatik auto karabana egingo dute gaur. Bihar, aldiz, 19:30ean manifestazioa antolatu dute herriko plazatik abiatuta.

ANOETA ▶

Anoetako Ikastolak batzarrera deitu du bihar

ERREDAKZIOA

Anoetako Herri Ikastolak ikasturte honetako batzar orokorra egingo du bihar, 19:00etan lehen deialdian eta 19:30ean bigarrean. Ondorengoa izango da gai zerrenda: aurreko batzarraren aktaren irakurketa; egun horretako batzarraren akta onesteko bazkideak izendatu; 2005-06 ikasturtearen galdu-irabaziak eta batzordeetako memorien laburpena; 06-07 ikasturteko urteko plana, gestio batzordeko ki-deen onarpena, Herri Irakaskuntza Mankomunitatea, aurrekontuak eta kiroldegia- ren erabilera-Anoetako Udal- ga, galde-erantzunak.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Samaniegok Coyuco GKEk Kolonbian duen proiektu bati laguntza emango dio

ERREDAKZIOA

Samaniego Herri Ikastetxeak Coyuco gobernu kanpoko elkar-teak Kolonbian egiten ari den proiektu bati laguntza eskainiko dio. Cauca haranean, Ginebra udalerrian dagoen El Porvenir nekazari komunitate-ari laguntzeko proiektua da atzo aurkeztu zutena Tolosako Kultur Etxean. Kolonbiako udal-erri horretako Guabas erreka

duela urte batzuk atera egin zen eta proiektuaren azken helburua erreka horren arroaren desestabilizazioa konpontzea da, erreka-aren garapen iraun- korraren bidez, ingurumen gestioa landuz.

Samaniego ikastetxeko ingurumen batzordearen ekimene- tik sortu da laguntza eskaintze-ko asmoa. Izan ere, El Porvenir komunitateko Guillermo Leon Valencia ikastetxearekin

senidetuta dago Samaniego ikastetxea. Bi ikastetxeak topa- tu zirenean konturatu baitziren ikuspegi hezitzaile eta filosofi- ko berbera zutela: elkartasun, ingurumenaren aldeko defen- tsa, aniztasunari errespetua eta genero berdintasunaren inguruan. Samaniegok proiektu- ari laguntza emateko antola- tu duen lehen ekitaldia hilar- en 31n egingo den Elkartasun Krosa izango da.



Atzoko aurkezpenaren une bat. I. GARCIA

aukerak zabaltzen

kontratupelko mugikorrak



LG KU311

3G

3000 mAh bateria
128 MB RAM
1000000 p. el.

19€



Sony Ericsson K610

3G

3000 mAh bateria
128 MB RAM
1000000 p. el.

36€



Datanis S.A.
KOMUNIKAZIOA Y CONSULTORIA

San Francisco, 19
Tolosa
☎ 943 608 126

EUSKALTELEKOMUNIKAZIOEN ENBAREN BAZKIDETZA OFIZIALA

KORRIKA 15 ▶

Euskararen alde berriro ere korrika

‘Heldu herriari’ lelopean Karrantzatik Iruñeara joango da 15. edizioa

ERREDAKZIOA

Beste korrika baten atarian gaude, 2007ko martxoaren 22an hasiko baita 15. edizioa. Hortik aurrera, bi mila berrehun eta berrogeita hamar esku baino gehiagok oratuko diote korrikaren lekukoari. «Argi eta garbi» ailegatuko da berriro Euskal Herriko txoko guztietara euskarari atxikiko zaion aldarria. Helduko da, bai, *Heldu herriari* lelopean. Atzo egin zuten, hain zuzen ere, aurkezpena, nazio mailan.

Eta, nola ez, eskualdetik ere igaroko da lasterketa. Hala, martxoaren 24an Ikaztegieta-tik sartuko da goizean goiz eta Villabonatik irtengo da, Alegia, Tolosa, Ibarra, Iruera eta Anoeta zeharkatu ostean.

Hamar egunez iraungo du lasterketak eta apirilaren 1ean izango du amaiera, Iruñean. Helburua euskara zabaltzea izango da, antolatzaileen esanetan. «ezker-eskuin zabaldu eta euskaraz hitz eginez, herri bat osatu dugulako euskaldunok: Euskal Herria, euskararen herria». Korrika 15aren bitartez, «euskararen herria gaila» aldarrikatu nahi dute antolatzaileek. Eta hamaika arrazoi eman zituzten atzoko aurkezpenean «euskarari heltzeko».

Euskal emakumea omenduz

AEKko ordezkariak Korrikan nola parte har daitekeen azaldu zuten, bide batez. Batetik, *Korrika laguntzaile* euskarria erosiz. Bestetik, herriz herri



Gaueko ordu txikietan igaro zen iaz Korrika eskualdetik. J. SAIZAR

osatuiko dituzten korrika bazordean parte hartuz. Korrika kulturalak antolatuko dituen ekitaldietan agertuz; Korrikan (www.korrika.org) webgunea bisitatuz; munduko itzulia egingo duen korrika birtualean parte hartuz; martxoaren 22an Karrantzara eta apirilaren 1ean Iruñera joanez eta ko-

rrika 15aren hasieran eta amaieran parte hartuz; materiala edo oroigarriak erosiz, korrika aurretik, bitartean edo ostean, eta abar luze bat.

Bestetik, Korrika 15ek euskal emakumeari egingo dio «ondo merezitako omenaldia», euskararen eta euskal kulturaren mantentze, berreskurapen

eta etorkizunean izan duen paperagatik. «Urteetako menderakuntza, jazartze eta zigorrei aurre eginez, euskal kultura eta euskara, belaunaldiz belaunaldi, gorde eta transmititzeko, euskal emakumeek izan duten indar, adore eta balioa omendu nahi ditugu», azaldu dute antolatzaileek.

KORRIKA 15 ▶

Korrikak Tolosaldea zeharkatuko du lasterketa hasi eta bi egunetara. Hauex da egingo duen ibilbidea:

HAINBAT DATU

Eguna. Martxoaren 24an, larubatarekin.

Ordua. 07:33:57ean aurreikusitako helduko dela lasterketa.

Ibilbidea. Ederfil / Ederu enpresetatik sartuko da Korrika eskualdera, Ikaztegieta-tik. Handik Alegiara joango da; ondoren Tolosa zeharkatuko du Ibarraraino, eta ondoren Tolosara bueltatuko da, Anoetara joateko; hemendik Irurara abiatuko dira eta Villabonara helduko dira; hemendik irtengo da, hain zuzen ere, Korrika gure eskualdetik.



60 minutu dituzu doan, hitz egiteko; bana itzazu nahi duzun bezala.

Zure taldearentzat. Zure neska-lagunarentzat. Nahi duzunarentzat. Aurtengo Eguberrietan, telefono finkoa Euskaltekin baldin baduzu, 60 minutu izango dituzu estatuko eta nazioarteko finkoetara doan deitzeko. Bana itzazu nahi duzun bezala, eta zoriendu zeure etxeokak.

Eskatu **1717**an.

Sustapena Euskaltel Leihoa eta Euskaltel Hautaketako bezeroentzat da, abenduaren 13a eta urtarrilaren 7a bitartean telefono finkoetara egiten diren deietarako. Ez dira sartzen estatuko mugikorretarako deiak, tarifa gehigarrikoak, sare adimendunekoak eta datu-konexioak.



LIZARTZA ▶ GIZARTEA

Alondegia aldeko kultur astea «positibotzat» jo dute

Alondegia barrutik ezagutzeko egunekin herrian eztabaida eta kezka sortzeko balio izan duela adierazi dute eraikinaren aldeko plataformako kideek

ERREDAKZIOA

Alondegia aldeko Kultur Astearen harira «oso balorazio baikorra» egin dute Alondegia aldeko plataformako kideek, izan ere, «herrian eztabaida eta kezka sortzeko» balio izan duela adierazi dute.

Asteen zehar antolatutako ekintzei dagokionez, baserrien historiaren inguruko hitzaldian «Lizartzako arkitektura-aren aberastasuna eta gomen-dioak gustura» aditu zituztela adierazi dute antolatzaileek. Ordizia, Oiartzun eta Lizartzako arazoak elkartrukatzeko

mahainguruak ere «emaitza onak» eman zituela baieztatu dute. Azkenik, ostiralean, haurrek eta helduek «Alondegia herri izaera mantentzeko» une politik pasatu zituzten antzerki ikuskizun, kantaldi eta merienda artean.

Alondegia aldeko plataformako kideek zera adierazi dute: «Udalak herriaren eskakizunak kontuan hartu behar ditu eta bere asmoez informatu behar gaitu bilkura batean», baita «behingoz utz dezala Alondegia pribatizatzeke jarrrera antidemokratikoa alde batera» adierazi ere.



Alondegia aldeko aldarrikapen eguneko kantaldiko unea. HITZA

LEABURU ▶

Eguberrietako loteria Txarama elkarteak

Urtero moduan, aurten ere Eguberrietako loteria jarri du eskuragarri Txarama elkarteak bazkideentzat. Loteria jasotzeko ordutegia 19:00etatik 20:00etara izango da eta gogoratu, etzi izango dela loteria jasotzeko azken eguna.

BERROBI ▶

Podologoaren bisitarako izen-ematea

Hilabetero bezala, Berrobiko Udalak podologo zerbitzua jarri du martxan oraingoan ere. Bisita hilaren 28an izango da 15:30ean. Hala ere, interesatuek alde aurretik eman beharko dute izena udaletxeko bulegoetan. Nahiago izanez gero, honako telefono zenbakian ere hartu daiteke izena: 943 68 32 94. Gogoratu, ostirala izango dela izena emateko azken eguna.

ZIZURKIL ▶

Ipuin ordua Pello Añorgarekin Atxulondon

Zizurkilgo Udalak Liburuaren Astea antolatu du gaurtik hasi eta hilaren 24ra arte. Hala, gaur, Pello Añorgaren ipuin kontaketa izango da 17:30ean Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean. Aipatu, bereziki, lau eta sei urte bitarteko haurrei zuzenduriko saioa izango dela. Gogoratu, ondorengo egunetan ere hainbat ekitaldi izango direla.

BELAUNTZA ▶ KIROLA



Haurren pilota jaialdi arrakastatsua

Erredakzioa ▶ Pasa den igandean pilota jaialdia ospatu zen Belauntzako frontoian. Bertan izan ziren 9 eta 11 urte bitarteko Belauntzako pilotazaleak, baita Aduna eta Alkizako pilota eskoletako 24 haur ere. Helburua jai giroko topaketa egitea zen arren, partida konpetitibo eta politik ikusi zituzten bertaraturikoek. Ondoren, hamaiketakoaz gozatu zuten haur eta gurasoek baita zozketaturiko sariak jaso ere. HITZA

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behean
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ennio@inmoennio.com
www.inmoennio.com

Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzen jartzeko moduan.

Anoeta. Duela gutxiko eraikuntzan duplexa salgai. Garaje itxia aukeran. Oso egoera onean.

Amezketak, Berastegi, Hernialde, Tolosa eta Zizurkil. Hainbat etxe bifamiliar eta atxiki, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.

Berrobi. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta bi trasteleku. Iggogailua jartzeko proiektuarekin.

Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin.

Ibarra. Julian Gayarre. 2 logela, sukaldea, sala eta bainugela. Berokuntzarekin. Ezin hobeto. 239.805 euro.

Ibarra. Euskalerria kalea. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Oso egoera onean.

Irura. Etxezarreta. 3 logela eta bi bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

Irura. Kale Nagusia, 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **Legorreta.** Trasteleku salmentan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.

Tolosa. Berazubi. Iggogailu proiektua onartuta. 228.384euro.
Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat

etxebizitza salgai. 2, 3 eta 4 logela aukeran. Garajeekin.

Tolosa. Beotibar. 36 m2. Altua, 150.000 euro.

Tolosa. Zumalakarregi. 92m2. 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berrituta eta estreinatzeke. Garajearekin.

Tolosa. La Estrella. Etxebizitza salgai oso egoera onean. Iggogailu eta garajearekin.

Tolosa. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena kanpoaldera. Sartzeko moduan. 215.160 euro.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 83 m2. Distribuzio iza ezberdinak. Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko. 46 m2ko apartamentu berritua

salgai. Iggogailu, berokuntza eta garajearekin.

Tolosa. SAMen 3 solairu eta sotoa duen etxe abikia salmentan.

Tolosa. Erabat akondizionatutako 120m2ko lokal-bulegoa alokatzen da. Zonalde bikaina. Egoera ezinhobea.

Oso argitsua eta lehio handiekin. Aire girotua. Egokia edozein bulegorako.

Villabona. Kale Berria. Eraikuntza berria. Pisu altua. 100 m2. Garaje itxiarekin.

Zizurkil. Etxe abikia salgai terraza eta lorategiarekin. Ezinhobeto. Orientazio bikaina.

Hernani. Akarregi. Karretera alboan. 358m2ko pabiloi industrial salgai, estreinatzeke.

BIDEGOIAN ▶

Yoga ikastaroa izango da urtarrilean hasita

Yoga ikastaroa antolatu du Udalak. Urtarrilaren 12tik, ostirala, hain zuzen, apirilera bitartekoa izango da. 14:30etik 16:00etarako saioak izango dira. Bidegoiango balio anitzeko gelan. Horretarako, 36 euro ordaindu behar dira Bidegoiango udaletxean. Izena Bidegoiango Udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan eman behar da (943 68 11 28), eta ostiralean amaituko da epea.

ALEGIA ▶

Gabonetako ekitaldiekin aurrera



Loatzoko txistulari batzuk. N. U.

ALBIZTUR ▶

Eskulan ikastaroa urtarriletik aurrera, martxan

Albizturko Udalak eskulan ikastaroa antolatu du urtarrilerako. Martxora arte iraungo du ikastaroak. Urtarrilaren 9, asteartea, izango da lehen eguna, 15:00etatik 17:00etara Kultur Etxean. Ikastaroan parte hartu ahal izateko 28 euro ordaindu behar da eta honetarako izen-ematea gaur amaitzen da, eta Albizturko Udaletxean 943 65 44 26 telefono zenbakira deitu behar da horretarako.

LEITZA ▶ PILOTA

Abel Barriolak ia eskutan izan du Lau t'erdiko garaipena

Emaitzarik estuena egin zuten pilotari leitzarrak eta Martinez Irujok, denetatik ikusi ahal izan zen final batean



Martinez Irujo eta Barriola, partidako une batean. R. BOGAJO/ARGAZKI PRESS

NEREA URBIZU

Abel Barriola pilotariak eskuan izan zuen igandeko Lau t'erdiko Txapelketa. Martinez Irujoren aurka 21 tanto egin zituen, ahal diren guztiak, hain zuzen.

Leitzarrak bere jarraitzaileek sufriztean lortu zuen, bukarra arte; izan ere, «txapela lortzetik tanto batera geratzean alde batera zein bestera eror zitekeen garaipena», adituen arabera, eta zortea kasu honetan Iberoko pilotariari egokitu zitzaion. Dena dela, aditu gehienek ere, «akatzet beteriko finala, baina ederra» izan zela azpimarratu zuten. Denetatik izan baitzuen Ogetako partidak: berdintasuna, emozioa, joko ona...

Joxton Olaetxea Abel Barriolaren botilleroak «zapore gazi-geza» geratu zaiola aitortu zuen, «ez baita berdina galtzen joan eta azkenean galtzea, baina kasu honetan, Abel

Barriolak gaizki sakatu duenean sartu da Irujo partidari: berak ireki dio bidea». Barriolak berak ere sentsazio txarrekin bukatu zuen, «partidan sartuta nengoen hasieratik eta alde handia atera nion Irujori. Txapela eskuan izan dut. Emaitza honek min handiago ematen du. Astebete beharko dut honetaz pixka bat ahazteko, eta konturatzeko benetan lortu dudana guztiaz».

Partida borrokatua

Martinez Irujori kosta egin zitzaion partidari sartzea: Barriolaren joku ona nagusitu egin zen: sakean asmatu zuen, pilota zehaztasun handiz luzatuz. Barriolak jokuaz azpitik egin zuen, horrela Irujori bere aireko jokoa zailduz.

Irujo honen aurrean «hase-erre» aldageletara joan eta askatutako benda berriz jarri behar izan zioten. 14-7ko emaitzarekin «urduri», Irujo

DATUAK ▶

Pilotakadak. 267.
Iraupena. 62 minutu.
Markagailua. 2-0, 2-7, 3-7, 3-9, 6-9, 6-12, 7-12, 7-14, 14-14, 14-15, 19-15, 19-16, 20-16, 20-21 eta 22-21.
Sakeak. 8 Martinez Irujok eta 7 Barriolak falta batekin.
Tantoak. 6 Irujok eta 8 Barriolak.
Hutsegiteak. 6 Irujo eta 6 Barriolak.
Pilotakadak. 267.
Detaleak. 2.100 ikusle Gasteizko Ogetan, Lau t'erdiko finala ikusteko. Lehen sakea Irujori egokitu zitzaion.

tantoak egiten hasi zen, gehienbat sakez, 19ra iritsi arte. Ondoren, leitzarrak tanto bat egin zuen. Aurretik berriz Irujo 20rekin, baina Barriola ez zen atzean geratu: berdindu eta gainditu egin zuen Abel Barriolak iberoarra. Baina akatsa egin zuen pilotari leitzarrak, «erraz itzultzeko zen pilota batekin», baina ez zitzaion ongi atera.

Azken tantoan ez zuen inork ez arriskatu nahi izan, eta azkenean Barriolak huts egin zuen. Atzokoan, txapela, Iberora joan zen.

Dena dela, leitzarrak partida ez zion erraz utzi irabazten gaur egun dagoen pilotari handienetakoari, eta hurrengo urteetan sendo ibiliko dela erakutsi zuen Abel Barriolak: duela lau urteko txapeldun handia, igandeko Ogetako Barriola, hain zuzen.

IKAZTEGIETA ▶

Olentzeroren egunerako Gabon kanta entseguak

Urtero moduan aurten ere Ikaztegietakok baserri baserri eta herri zehar Gabon gauean Eguberrietako kantak abestuko dituzte. Horretarako, ostiralean 21:30ean eta larunbatean 15:30ean egingo dituzten entseguetarako deia egin dute guraso elkarteek. Entseguak kiroldegian izango dira: kantuak, berriz, 24ean 20:30ean egingo dituzte.

IKAZTEGIETA ▶

Hondakinei buruzko informazioa

Nola murriztu ditzaket nire hondakinak? Eta zer egin sortutakoekin? Tolosaldeko Mankomunitateak, hiri hondakinei buruzko gida informatiboa banatuko du. Bertan, guztion eskutan dauden 3 betebeharrak ekologiko dira ardatzak: murriztu, berreraibili eta birziklatu. Liburuaren banaketa Ikaztegietakoz plazar egingo dute 16:30etik 17:30era, etzi.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Elizan 18:00etan Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua.
Ibarra. Kultur Etxean Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua, 19:30ean.
Leaburu. 16:15etik 17:15era, Tolosaldeko Mankomunitatearentzat eginiko hiri hondakinei buruzko gida banatuko dute herriko plazan.
Txarama. Txarama elkarteak loteria jarri du eskuragarri bazkideentzat. Jasotzeko epea etzi amaituko da. Ordutegia, astean zehar 19:00etatik 20:00etara eta asteburuan 13:00etatik 14:00etara.
Tolosa. Ttentelek konpartsan parte hartu nahi duenak izena eman beharko du gaur 18:30etik 20:30era.
Tolosa. Susan Truchueloren *Tolosa. Aro modernoan* liburuaren aurkezpena, udaltetxean, 19:30ean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Ana Jesus Ansoenaren zeramika koadro lanak ikusgai, jubilatuen tabernan, urtarrilaren 14ra arte.
Tolosa. Hondakinen Ingurugiro erakusketa ikusgai izango da urtarrilaren 13a bitarte Aranburu Jauregin. Bisita-orduak 17:30etik 20:30era izango dira, jaiagunetan eta astelehenetan izan ezik.
Tolosa. Maria Jose Rekalderen eskultura erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregin urtarrilaren 20ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti*.
 21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
 Alai. Gaur urtebete, muxux prexioxa, lurako familaren partetik.



ZORIONAK
 Izaia!
 Maite zaitugu pila pila!



URTE ASKOAN
 Nahia Dominguez. Gaur 10 urte. Zorionak etxeko partetik.



URTE ASKOAN
 Maialen Berasategi (Tolosa). Zure ahizpa izaskun eta gurason partetik zorionak eta muxu bat.



URTE ASKOAN
 Antonio Alustiza (Amezketeta). Gaur 55 urte. Zorionak Loilakon partetik.



URTE ASKOAN
 Peru Ormaetxea Odriozola (Tolosa). Gaur 5 urte. Jokin eta gurason partetik muxu handi 1.



ZORIONAK ANBELEN!
 Euskal presoak kalera! Guapa!



ZORIONAK!
 Herriak du hitza. Euskal Herriak autodeterminazioa!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZaren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZaren egoitza Leitza Udaletzeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

ALEGIKO ZAHARREN EGOITZA EDARITEGIA

Alegiko plaza • Tel.: 943 65 58 00
Gosariak, pintxoak, meriendak eta... GIRO JATORRA!